OSASUN SAILA

6635

ERABAKIA, 2008ko urriaren 22koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzako zuzendari nagusiari ahalmena ematen diona, hain zuzen Osakidetzako langileen lan-baldintzak 2007-2009 urteetarako arautzen dituen Akordioan aurreikusitako lekualdatze-lehiaketak kudeatzeko.

Osakidetzako langileen lan-baldintzak 2007-2009 urteetarako arautzen dituen Akordioa 2007ko abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuaren bidez onetsi zen, eta dekretu hori 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuak aldatu zuen. 106/2008 Dekretuaren 1. atalaren 4. puntuan aurreikusten da urtero bi lekualdatze-lehiaketarako deialdia egitea.

1997ko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak onetsitako Osakidetzaren Estatutuen 12.5 artikuluaren arabera, Osakidetzaren Antolakunde Orokorrak kudeatu beharko ditu Administrazio Kontseiluak, izaera orokorragatik, izangaien balizko kopuruagatik edo antzeko arrazoiengatik, zehazten dituen hautatzeko eta betetzeko prozesuak.

Akordio horretan aurreikusitako lekualdatze-lehiaketa prozesuen bidez, lanpostu asko betetzeko deialdia egiten da. Deialdia izapidetzeko, administrazio-prozedura bat behar da, Administrazioko lanpostuak betetzeko oinarrizko printzipioak errespetatzen direla bermatzen duena.

Adierazitakoarekin bat etorriz, zuzendari nagusiak proposatuta, eta entitate publikoaren estatutuetako 8.5.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak hauxe erabaki du:

ERABAKIA:

Lehenengoa.– 2007ko abenduaren 18ko 235/2007 Dekretua dela-eta, Osakidetzako Zuzendaritzari eskatzea kudeatu dezala Osakidetzako langileen lan-baldintzak 2007-2009 urteetarako arautzen dituen Akordioan aurreikusitako urteroko lekualdatze-lehiaketetarako deialdia. 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuak aldatu zuen 2007ko abenduaren 18ko 235/2007 Dekretua.

Bigarrena.– Lan horren barruan, berariaz deialdietako oinarriak prestatu, negoziatu eta izapidetzea daude sartuta, bai eta deialdiko lanpostuak zehaztea, epaimahai kalifikatzaileak izendatzea, deialdiak ebaztea eta destinoak esleitzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 22a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

6635

ACUERDO de 22 de octubre de 2008, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se faculta a la Directora General de Osakidetza para la gestión de los concursos de traslados previstos en el Acuerdo de condiciones de trabajo del personal de Osakidetza para los años 2007-2009.

El Acuerdo de condiciones de trabajo del personal de Osakidetza para los años 2007-2009 aprobado por Decreto 235/2007, de 18 de diciembre de 2007 modificado por el Decreto 106/2008, de 3 de junio de 2008 prevé en el apartado primero, punto 4 de su anexo la convocatoria de dos concursos de traslados anuales.

De conformidad con el artículo 12.5 de los Estatutos Sociales de Osakidetza aprobados por Decreto 255/1997, de 11 de noviembre de 1997, corresponde a la Organización Central de Osakidetza la gestión de aquellos procesos de selección y provisión que el Consejo de Administración del Ente determine por su carácter general, previsible número de aspirantes u otras circunstancias análogas.

Considerando que los procesos de concurso de traslados previstos en dicho Acuerdo suponen la convocatoria para la cobertura de un volumen elevado de puestos cuya tramitación exige un procedimiento administrativo que garantice el respeto de los principios básicos para el acceso y provisión de los puestos de trabajo en la Administración Pública.

De conformidad con lo expuesto, a propuesta de la Directora General, y de acuerdo a lo previsto en el artículo 8.5.e) de los Estatutos del Ente Público, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud adopta el siguiente,

ACUERDO:

Primero.– Encomendar a la Dirección General de Osakidetza la gestión de la convocatoria de los concursos de traslados anuales previstos en el Acuerdo de condiciones de trabajo del personal de Osakidetza para los años 2007-2009 por Decreto 235/2007, de 18 de diciembre de 2007, modificado por el Decreto 106/2008, de 3 de junio de 2008.

Segundo.– Dicha encomienda incluirá específicamente la elaboración, negociación y tramitación de las bases de las convocatorias, incluyendo la determinación de los puestos a convocar, la designación de los tribunales calificadores y la resolución de las convocatorias y adjudicación de destinos.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2008.

El Presidente del Consejo de Administración,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.